

**ACUERDO DE CONSEJO DE GOBIERNO SOBRE NOMBRAMIENTO DE MIEMBRO DEL COMITÉ DE GARANTÍAS DE LA EVALUACIÓN DE LA ACTIVIDAD DOCENTE DEL PROFESORADO EN LA UNIVERSIDAD PÚBLICA DE NAVARRA**

**GOBERNU KONTSEILUAREN ERABAKIA, NAFARROAKO UNIBERTSITATE PUBLIKOKO IRAKASLEEN LANA EBALUATZEKO BERME BATZORDEKO KIDEA IZENDATZEARI BURUZKOA**

Por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 20 de diciembre de 2007 se aprobó el Diseño de Evaluación de la Actividad Docente del Profesorado en la Universidad Pública de Navarra.

Gobernu Kontseiluak 2007ko abenduaren 20an hartutako erabaki baten bidez, Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasleen Lana Ebaluatze Diseinua onetsi zen.

El 19 de septiembre de 2017 el Consejo de Gobierno aprobó un nuevo Programa de Evaluación de la Actividad Docente del Profesorado de la Universidad Pública de Navarra. Este programa se modificó nuevamente mediante acuerdo de Consejo de Gobierno de 21 de septiembre de 2018.

2017ko irailaren 19an, Gobernu Kontseiluak Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasleen Lana Ebaluatze Programa berri bat onetsi zuen. Programa berriz aldatu zen Gobernu Kontseiluaren 2018ko irailaren 21eko erabaki baten bidez.

Como se recoge en el apartado 3.3 de este documento, el órgano encargado de revisar si el proceso de evaluación de la actividad docente del profesorado ha presentado irregularidades o defectos es el Comité de Garantías, compuesto por tres profesores de los cuerpos docentes universitarios con al menos tres quinquenios y con tres tramos del complemento docente, elegidos por el Consejo de Gobierno a propuesta del Rector de la Universidad Pública de Navarra.

Dokumentu horren 3.3 apartatuan jasotzen denez, Berme Batzordea da irakasleen lana ebaluatze prozesuak irregulartasunak edo akatsak izan dituen aztertze ardura duen organoa. Berme Batzordea Unibertsitateko irakaskidegoetako hiru irakaslek osatzen dute. Gutxienez hiru bosturteko eta irakaskuntzako osagarriaren hiru tarte eginda izan behar dituzte. Nafarroako Unibertsitate Publikoaren errektoreak proposatu, eta Gobernu Kontseiluak aukeratuko ditu.

Por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 24 de octubre de 2008 se designaron los miembros del Comité de Garantías, cuya composición se modificó por Acuerdo del Consejo de Gobierno de 9 de octubre de 2013.

Gobernu Kontseiluaren 2008ko urriaren 24ko erabaki baten bidez Berme Batzordeko kideak izendatu ziren. Batzordearen osaera aldatu egin zen Gobernu Kontseiluaren 2013ko urriaren 9ko erabaki baten bidez.

Por Resolución 624/2021, de 12 de marzo, del Rector de la Universidad Pública de Navarra, se acordó la jubilación forzosa de don Juan Cabasés Hita, siendo su último día de trabajo el 31 de agosto de 2021.

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektorearen 2021eko martxoaren 12ko 624/2021 Ebazpenaren bidez, Juan Cabasés Hita jaunaren nahitaezko jubilazioa erabaki zen, eta 2021eko abuztuaren 31n izan zuen azkeneko lan-eguna.

Considerando lo expuesto anteriormente, procede el nombramiento de un nuevo miembro del Comité de Garantías para ocupar el puesto que ha quedado vacante tras la jubilación forzosa de don Juan Cabasés Hita.

Horiek horrela, bidezkoa da Berme Batzordeko beste kide bat izendatzea, Juan Cabasés Hita jaunak nahitaezko jubilazioa hartu eta gero hutsik geratu den lanpostua betetzeko.

A propuesta del Rector de la Universidad Pública de Navarra, el Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el día 6 de octubre de 2021, previa deliberación de sus miembros, adopta el siguiente:

Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak proposatuta, honako hau da Gobernu Kontseiluak, bere kideek alde aurretik eztabaida egin eta gero, 2021eko urriaren 6an egindako bileran hartu duen

**ACUERDO**

**ERABAKIA**

**Primero.-** Designar como miembro del Comité de Garantías de la Evaluación de la Actividad Docente del Profesorado en la Universidad Pública de Navarra Al profesor D. Fernando Lera López, que ocupará el puesto que ha quedado vacante tras la jubilación forzosa de don Juan Cabasés Hita.

**Lehenengoa.-** Nafarroako Unibertsitate Publikoko Irakasleen Lana Ebaluatze Berme Batzordeko kide izendatzea Fernando Lera López jauna, zeinak Juan Cabasés Hita jaunaren nahitaezko jubilazioa eta gero hutsik geratu den lanpostua beteko baitu.

En consecuencia, la Comisión queda compuesta como sigue:

- D. José Luis Goñi Sein
- D. Manuel López-Amo Sainz
- D. Fernando Lera López

**Segundo.-** Comunicar el presente Acuerdo al profesor designado, D. Fernando Lera López, al profesor saliente, D. Juan Cabasés Hita, a los restantes miembros del Comité de Garantías, al Vicerrectorado de Profesorado y al Servicio de Recursos Humanos.

**Tercero.-** Publicar el presente acuerdo en el tablón electrónico de la Universidad Pública de Navarra.

**Cuarto.-** A tenor de lo establecido en el artículo 6.4 de la Ley Orgánica 6/2001 de Universidades y en el artículo 144.1 de los Estatutos de la Universidad, el presente acuerdo agota la vía administrativa, contra el mismo podrán los interesados interponer potestativamente recurso de reposición, ante el Consejo de Gobierno, en el plazo de un mes, o directamente recurso contencioso administrativo ante los Juzgados de dicho orden jurisdiccional del Tribunal Superior de Justicia de Navarra; contados ambos recursos desde el día siguiente al de su publicación en el tablón de anuncios electrónico de la Universidad.

Hortaz, honako hauek osatuko dute Batzordea:

- José Luis Goñi Sein jauna
- Manuel López-Amo Sainz jauna
- Fernando Lera López jauna

**Bigarrena.-** Erabaki hau aditzera ematea irakasle izendatuberriari, hots, Fernando Lera López jaunari, lanpostua uzten duen irakasleari, hots, Juan Cabasés Hita jaunari, Berme Batzordeko gainerako kideei, Irakasleen Gaietarako Errektoreordetzari eta Giza Baliabideen Zerbitzuari.

**Hirugarrena.-** Erabaki hau Nafarroako Unibertsitate Publikoaren iragarki-ohol elektronikoan argitaratzea.

**Laugarrena.-** Unibertsitateei buruzko 2001eko abenduaren 21eko 6/2001 Lege Organikoaren 6.4 artikulua eta Unibertsitatearen Estatutuen 144.1 artikulua ezarritakoaren arabera, erabaki honek administrazio bidea agortzen du, eta interesdunek zilegi dute erabaki honen aurka, aukeran, berraztertze errekurtsoa jartzea Gobernu Kontseiluaren aurrean, hilabeteko epean, edo administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzien epaitegietan, zuzenean. Bi errekurtsoetarako epeak erabaki hau Unibertsitatearen iragarki-ohol elektronikoan argitaratu eta biharamunetik aurrera kontatuko dira.

EL PRESIDENTE / BATZORDEBURUA



Ramón Gonzalo García  
Rector / Errektorea

upna  
Universidad Pública de Navarra  
Nafarroako Unibertsitate Publikoa